**Ordenantza Fiskalen 2014. urterako aldaketa behin-behineko onestea: Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga, Hirigintza Zerbitzuengatiko eta Obra Lizentziagatiko Tasa, Establezimenduak Irekitzeko Lizentziagatiko Tasa.**

Getxoko Udal Txit Argiak, 2014. urteko apirilaren 29an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen hurrengo Ordenantza Fiskalen 2014. urterako aldaketa behin-behineko onestea: Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga, Hirigintza Zerbitzuengatiko eta Obra Lizentziagatiko Tasa, Establezimenduak Irekitzeko Lizentziagatiko Tasa.

Bere arrazoiko espedienteak jendearentzat erakusgai gelditzen dira, Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Udalaren iragarki-taulan, 30 eguneko epe batez, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta. Epe horren barruan interesdunek espedienteak aztertu eta egoki deritzaten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.

*Jendaurrean ezarritako espedienteak*

— Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza.

— Hirigintza Zerbitzuengatiko eta Obra Lizentziagatiko Tasa.

— Jarduera eta Instalazioekin Lotutako Zerbitzuak Eskaintzeagatiko eta Establezimenduak irekitzeko Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala. (Establezimenduak Irekitzeko Lizentziagatiko Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskaleko idazte berria).

Getxon, 2014ko apirilaren 30ean.—Zerga Kudeaketaren Arduraduna, Alkatetza-udalburutzaren dekretuz, 3988-2011/08/01 esku emanda, Cristina Orbezua González

(II-2843)

**Aprobación provisional de la modificación para el año 2014 de las siguientes Ordenanzas Fiscales: Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, Tasa por Servicios Urbanísticos y Licencias de Obras, Tasa por Licencia de Apertura de Establecimientos.**

El Excmo. Ayuntamiento de Getxo en sesión plenaria celebrada el día 29 de abril de 2014, acordó aprobar provisionalmente la modificación para el año 2014 de las siguientes Ordenanzas Fiscales: Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, Tasa por Servicios Urbanísticos y Licencias de Obras, Tasa por Licencia de Apertura de Establecimientos.

Los expedientes de su razón quedan expuestos al público, de conformidad con lo establecido en el art. 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre de Haciendas Locales, en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento, durante el plazo de 30 días, a contar desde la fecha de publicación del presente anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia», dentro de los cuales los interesados podrán examinar los expedientes y presentar las reclamaciones y sugerencias que en su caso estimen oportunas.

*Expedientes que se exponen al público*

— Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto de Construcciones, Instalaciones y Obras.

— Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por Servicios Urbanísticos y Licencias de Obras.

— Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la prestación de Servicios por Actividades e Instalaciones y Apertura de Establecimientos. (Nueva redacción de la Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por Licencia de Apertura de Establecimientos).

En Getxo, a 30 de abril de 2014.—La Responsable de Gestión Tributaria, por delegación en virtud del Decreto de la Alcaldía-Presidencia n.º 3988 de fecha 01/08/2011, Cristina Orbezua González

(II-2843)

•

## Leioako Udala

**San Bartolome-HAPNko 7B gunearen bidezaintzari dagokion Xehetasun Azterketari behin betiko onespena ematea.**

2014-4-29 eguneko Osoko Bilkuraren 3. erabakiaren bidez, San Bartolome-HAPNko 7B gunearen bidezaintzari dagokion Xehetasun Azterketari behin betiko onespena eman zaio.

Hirigintzako Plangintza Araudia onetsi zuen ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuaren 140.6. artikuluan adierazitakoari jarraituz, iragarki hau argitaratuko da.

Administrazio bidea amaitzen duen ekintza honen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian dagokion Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hala ere, nahi izanez gero eta aurreko paragrafoan aipatu den administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini aurretik, berraztertzeko errekurtsoa ipini ahal izango da jakinarazi den administrazio ekintza eman zuen organo beraren aurrean, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Berraztertzeko errekurtso hori administrazioaren isiltasunaren bitartez gaitzetsi dela ulertuko da, berau jarri eta hilabete igaro ostean horren ebazpenik jakinarazi ez bada. Hala izanez gero, sei hilabeteko epea egongo da, jakinarazpen honen lehenengo paragrafoan azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko, administrazioaren isiltasunaren bitartez errekurtsoa gaitzetsi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Honako artikulu hauetan daude errekurtso-erregimen hauen oinarri juridikoak: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu zuen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluak, aben-

## Ayuntamiento de Leioa

**Aprobación definitiva del Estudio de Detalle relativo a la Vialidad del Área 7B del P.G.O.U.-San Bartolomé Vacante.**

Mediante acuerdo plenario número 3 adoptado en la sesión celebrada el día 29/04/2014, se ha aprobado con carácter definitivo el Estudio de Detalle relativo a la Vialidad del Área 7B del P.G.O.U.-San Bartolomé Vacante.

Conforme a lo señalado en el artículo 140.6 del R.D. 2159/1978, de 23 de junio, que aprueba el Reglamento de Planeamiento Urbanístico, se procede a la inserción del presente anuncio.

Contra este acto, que es definitivo en vía administrativa, se podrá interponer en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo que corresponda del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado en el párrafo anterior, podrá interponerse recurso de reposición ante el mismo órgano que dictó el acto administrativo que ahora se notifica, y esto en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de publicación del presente anuncio. Tal recurso de reposición se entenderá desestimado por silencio administrativo si, en el transcurso de un mes desde la fecha de su interposición, no se le notifica la resolución del mismo. En este último caso, el plazo para interponer el recurso contencioso-administrativo mencionado en el párrafo primero de esta notificación será de seis meses, contándose a partir del día siguiente al que se produjo la desestimación por silencio administrativo.

Los fundamentos jurídicos de este régimen de recursos se encuentran en los artículos 8 y 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, modi-

cve: BAO-BOB-2014a085

duaren 23ko 19/2003 Lege Organikoaren Hamalaugarren Xedapen Gehigarriak aldatu zuena, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109.c), 116, 117 eta 43.2 artikuluekin bat etorriz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52.1 artikulua, apirilaren 11/1999 Legean idatzi bezala.

Arestian aipatutakoari inolako kalterik egin gabe, egoki irizten den beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Leioan, 2014ko apirilaren 30ean.—Alkatea, María Carmen Urbieta González

(II-2871)

## Muskizko Udala

**Muskizko biztanleen Udal Erroldan behin betirako baja**

Alexandre Cezar Silva de Almeida, María Cruz Salgado Porto eta Ángel González Blanco jaun-andreei jakinarazten saiatu da, baina ez da lortu; beraz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuenak, bere 59.4 artikuluan xedatutakoa betez 2014ko apirilaren 23ko Alkatetza Dekretuaren bidez hauxe xedatu dela jakinarazten da:

Muskizko Udalak prozedura hasi zuen Muskizko Biztanleen Udal Erroldan hurrengo lerroetan aipatzen diren pertsonei ofizioz baja emateko. Prozedura aztertu ondoren eta Erroldatze Kontseiluaren Bizkaiko Sailak emandako txostenaren arabera, hauxe xedatu dut:

Pertsona hauei baja ematea Muskiz Biztanleen Udal Erroldan:

— Alexandre Cezar Silva de Almeida.
— María Cruz Salgado Porto.
— Ángel González Blanco.

Izan ere, erroldatuta daude Toki Erakundeetako Biztanleria eta Lurralde Mugatzeari buruzko Araudiko 54. artikuluaren baldintzak bete gabe. Artikulu horrek ezartzen duenez, Espainian bizi den pertsona oro, bere ohiko bizileku den udalerriko erroldan egon beharko da inskribaturik, eta kasu honetan baldintza hori ez da betetzen, horretarako tramitatu den prozeduran ikusten den bezalaxe.

Interesdunei jakinarazten zaie jakinarazpenetarako helbidea edo bidea jakiteko modurik ez dagoenean, edo jakinarazten saiatu arren, ezin izan bada egin, iragarki hau argitaratuko dela bizi izan den azken helbidearen udaletxeko iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Ebazpen honen berri emango zaie Udal Estatistika Sailari eta interesdunei, dagozkion ondorioak sor ditzan.

Hau jakinarazten dizu(e)gu bidezkoak diren ondorioetarako. Era berean, jakinarazten dizu(e)gu administrazio-bidea agortzen duen berariazko egintza honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango duzu(e)la dagokion Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, Administrazio Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluen arabera eta, orobat, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldarazten duen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109 c) artikuluan ezarritakoarekin bat. Errekurtso hori aurkezteko, bi hilabeteko epea izango duzu(e), jakinarazpen hau jasotzen duzu(e)n egunaren biharamunetik hasita.

Dena dela, hala nahi izanez gero eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri aurretik, jakinarazten zaizu(e)n berariazko ebazpen honen kontra berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diozu(e)la berori eman zuen erakunde berari, eta, horretarako, hilabeteko epea izango duzu(e), jakinarazpen hau jasotzen duzu(e)n egunaren biharamunetik hasita.

ficada por la Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre, en concordancia con los artículos 109.c), 116, 117 y artículo 43.2 de la Ley 4/1999, de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como en el artículo 52.1 de la ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en la redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril.

Sin perjuicio de cuanto se señala anteriormente, podrá interponerse cualquier otro recurso que se estime procedente.

En Leioa, a 30 de abril de 2014.—La Alcaldesa, María Carmen Urbieta González

(II-2871)

## Ayuntamiento de Muskiz

**Baja de oficio definitiva en Padrón de Habitantes de Muskiz**

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 59.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común de 26 de noviembre de 1992, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero y a fin de que sirva de notificación a Alexandre Cezar Silva de Almeida, María Cruz Salgado Porto y Ángel González Blanco, por haber resultado fallido el intento de notificación personal, se hace saber que la Alcaldía, por Decreto de fecha 23 de abril de 2014, ha dispuesto lo siguiente:

Examinado el procedimiento instruido por el Ayuntamiento de Muskiz relativo a la baja de oficio de la inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes del municipio de Muskiz de las personas que a continuación se detallan y de conformidad con el informe suministrado por el Consejo de Empadronamiento de la Sección Provincial de Bizkaia, vengo a disponer lo siguiente:

Dar de baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes de Muskiz a:

— Alexandre Cezar Silva de Almeida.
— María Cruz Salgado Porto.
— Ángel González Blanco.

Por entender que figuran empadronados incumpliendo los requisitos establecidos en el artículo 54 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, por el cual toda persona que viva en España está obligada a inscribirse en el padrón del municipio en el que resida habitualmente, circunstancia que se estima, no se da en este caso, visto el procedimiento instruido al efecto.

Hacer saber a los interesados que cuando se ignore el lugar de la notificación, el medio de notificación, o bien, intentada la notificación, no se hubiese podido practicar, la notificación se hará por medio de anuncios en el tablón de edictos del Ayuntamiento de su último domicilio, y en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Dar traslado de la presente resolución al Departamento de Estadística Municipal y a los interesados para los efectos oportunos.

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá/n Vd/s interponer en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo que corresponda, a tenor de lo establecido en los artículos 8 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el artículo 109 c) de la Ley 4/1999, de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrán Vd/s interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

cve: BAO-BOB-2014a085